



C ERANSKINA

Irakaskuntza Ertainen Institutu Teknikoetako Irakasleen kidegoko karrerako funtzionarioak
Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan ez dauden lan-legepeko irakasle finkoak

C.1.- Esleipenean parte hartu behar duten pertsonen behin-behineko zerrenda

2019-2020 ikasturterako esleipenean parte hartu behar duten pertsonen behin-behineko zerrenda 2019ko abuztuaren 7ko 09:00etan emango da argitara Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetako iragarki-oholetan.

C.2.- Pertsonen behin-behineko zerrendaren kontrako erreklamazioak egiteko epea

Esleipenean parte hartu behar duten pertsonen behin-behineko zerrendaren kontrako erreklamazioak egiteko epea 2019ko abuztuaren 7ko 09:00etatik 11:00etara egongo da zabalik.

Erreklamazioa dagokion lurralde-ordezkaritzan aurkeztu beharko da.

C.3.- Esleipenean parte hartu behar duten pertsonen behin betiko zerrenda

2018-2019 ikasturterako esleipenean parte hartu behar duten pertsonen behin betiko zerrenda 2019ko abuztuaren 7ko 11:30etan emango da argitara Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetako iragarki-oholetan.

C.4.- Prozesuan eskainitako lanpostuen zerrenda

Esleituko diren lanpostuen zerrenda 2019ko abuztuaren 7ko 09:00etan emango da argitara Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetako iragarki-oholetan.

C.5.- Esleipen-ekitaldi publikoa

Lanpostuen esleipena 2019ko abuztuaren 7ko 11:30etan egingo da dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetako areto nagusian.